

Hauxe da gaur, irailaren 27an, Udal Osoaren Ohiko Bilkurak 19:00etan jorratuko dituen gaiak:

1.-Aurreko bilkurako aktaren onespena, hala badagokio.

2.- Azkoitiko Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza departamentuaren arteko lankidetzaren hitzarmenaren onespena, premiamendu prozeduran ondasunak besterentzea agintzeko.

3.- Kreditu gehigarrien bidez kredituak aldatzeko Azkoitiko Udalaren 3 zenbakidun espedientearen onespena.

4.- 2018 ekitaldirako Ordenantza Fiskalen aldaketaren onespena.

5.- 2018 ekitaldirako ur hornikuntza, saneamendu eta azpiegituren tasen onespena.

6.- 2018 ekitaldirako Zubiaurre-Elkargunea Institutuko tarifen onespena.

7.- 2018 ekitaldirako Taxien tarifen onespena.

8.- Azkoitiko Bake-Epaile ordezkoa hautatzeko jardunbideari hasiera ematea.

9.- EH Bildu udal taldeak aurkezturiko mozioa, UK45G autobus zerbitzuaren inguruan.

10.- EH Bildu eta EAJ-PNV udal taldeek Kataluniari buruz aurkeztutako mozioa.

11.- Jakes Uranga Repulles jaunak aurkeztutako zinegotzi karguari uko egitearen berri ematea.

12.- Behin betiko onespene berri ematea.

13.- Aurrekontuari buruzko informazioa.

14.- Galde-erreguak.